

ESKULIBURUA

Tesia bilatu


Tesia irizpide baten bitartez bilatu ahal izateko, nahikoa da bilaketa pantailan, nahi den eremuetan, datuak sartzea. Adibidez, *Xabier* izeneko egile guztien tesiak topatu nahi izanez gero, **Egilea** eremuan *Xabier* izena idatzi beharko luke erabiltzaileak.



The screenshot shows a search interface titled "Tesia bilatu". It contains several input fields and buttons. The "Egilea:" field contains the text "Xabier". The "Testu librea:" field has a dropdown menu. Below it are "Titulua:", "Unibertsitatea:", and "Jakintza-arloa:" fields, each with a small "..." icon to its left. The "Urtea:" field is empty. The "Deskriptoreak:" field has a dropdown menu. At the bottom, there are two buttons: "Bilatu" and "Garbitu".

Beste adibide bat, esaterako, 2004 urteko tesi guztiak zeintzuk diren bilatu nahi izatea izan daiteke. Horretarako, **Urtea** eremuan 2004 zenbakia sartu beharko litzateke. **Egilea**, **Titulua** eta **Urtearen** kasuan, funtzionalitatea berdina da, nahikoa da hitz edo zenbaki bat ondoko eremuan sartzea, emaitza lortu ahal izateko.

Testu librearen kasuan, laburpenetan bi hitz aurkitzeko aukera ematen du interfazeak. Bi hitz horiek, EDO eta ETA eragileekin konbina daitezke. Adibidez, *kimika* eta *eroaletasuna* hitzak dituzten tesiak topatzeko, nahikoa da kutxa batean *kimika* jartzea, ETA eragilea hautatzea eta azkenik, bigarren kutxan *eroaletasuna* idaztea. OR eragilea aukeratuz gero, *kimika* edo *eroaletasuna* hitzak dituzten tesien zerrenda bueltatuko du aplikazioak.



This is a close-up of the "Testu librea:" field. It consists of three parts: a text input field with the value "kimika", a dropdown menu with "ETA" selected, and another text input field with the value "eroaletasuna".

Deskriptoreen kasuan, antzeko funtzionalitatea du aplikazioak, baina deskriptoreak idatzi beharrean, zerrendatik hautatu beharko ditu erabiltzaileak. Adibidez, *informatika* eta *ingeniaritza* deskriptoreak dituzten tesiak kontsultatzeko, nahikoa izango da zerrendetatik bi deskriptore horiek hautatu eta ETA eragilea tartean jartzea.

Deskriptoreak:
informatika ETA ingeniaritza

Bi edo datu gehiago sartuz gero, irizpide guztiak betetzen dituzten tesiak lortuko dira, alegia, *Xabier* izena eta Testu librean *itzulpen* hitza sartuz gero, *Xabier* izena ETA laburpenean *itzulpen* hitza duten tesien zerrenda bueltatuko du aplikazioak.

Eremu batzuen kasuan, **Unibertsitatea** eta **Jakintza-alorraren** kasuan, esaterako, beste pantaila batean egin behar da aukeraketa. Hurrengo atalean azalduko dugun bezalaxe.



Unibertsitateak eta jakintza-alorrak aukeratu

Unibertsitateen zerrenda itxi bat eskaintzen du aplikazioak. Bilaketaren kasuan unibertsitate bat edo gehiago aukeratu daitezke, eta OR eragilea aplikatuko da. Bilaketaren hasierako pantailan Unibertsitatea eremuaren ondoan dagoen “...” botoian klik egin behar da.

Unibertsitatea:
...

Jakintza-arloa:
.....

Urtea:

Ondoren, Unibertsitateen zerrenda osoa ikusiko du erabiltzaileak (zerrenda luzea bada, orrikatua ikusiko du). Zerrenda horretako unibertsitatea aukeratu ahal izateko, klik egin behar da  ikonotxoan eta aukeraketa kentzeko (lehendik aukeratua bazegoen), berriz,  irudiaren gainean klik egin behar da.

Unibertsitateak aukeratu	
5 emaitza aurkitu dira, orrialdea 1 / 1	
1	
Unibertsitatea	
<input type="checkbox"/>	Bordeleko Unibertsitatea
<input type="checkbox"/>	Deustuko Unibertsitatea
<input type="checkbox"/>	Euskal Herriko Unibertsitatea
<input type="checkbox"/>	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
<input type="checkbox"/>	Nafarroako Unibertsitatea
5 emaitza aurkitu dira, orrialdea 1 / 1	
1	
<input type="button" value="Onartu"/>	

Behin aukeraketak burututa, *Onartu* botoiari klik eginez gero, bilaketaren sarrera pantailan aukeratutako unibertsitate guztiak zerrendatuko dira.

Unibertsitatea:	<input type="text" value="Aukeratu zerrenda honetan..."/>
	<input type="text" value="Euskal Herriko Unibertsitatea"/> <input type="text" value="Nafarroako Unibertsitate Publikoa"/>
Jakintza-arloa:	<input type="text" value="Aukeratu zerrenda honetan..."/>
	<input type="text"/>
Urtea:	<input type="text"/>

Jakintza-alorrak aukeratzeko, Unibertsitateak aukeratzeko pausu berdinak jarraitu behar dira.

Bilaketaren emaitza

Emaitza bezala, irizpide horiek betetzen dituzten tesien zerrenda jasoko dugu kasu guztietan, tesiaren urtearen arabera ordenatuta.

Tesi kopurua handia bada, adibidez 2003ko tesien zerrenda eskatzen badugu, emaitza orrikatuta bueltatuko da. Kasu honetan, zerrenda gainekeo

edo azpiko zenbakien bidez edo aurrekoa/hurrengoa esteken bidez, orriz orri mugitu ahal izango da erabiltzailea.

Bilaketaren emaitza				
Bilaketaren irizpideak: Urtea: 2003				
12 emaitza aurkitu dira, orrialdea 1 / 2				1 2 hurrengo orria
	Titulua	Egilea	Zuzendaria	Urtea
	Erreaktibo organolitikoak sintesi asimetrikoan, aminen aminoalkoholen eta pirroloisokinolonen sintesia	Sonia Arrasate Gil	Esther Lete Exposito eta Nuria Sotomayor Anduiza	2003
	Makurdura portaeraren analisia eta tenperaturaren eragina norabide bakarreko karbono/epoxi konpositean	Faustino Mujika Garitano	Iñaki Mondragon Egaña	2003
	Eremu-teorietako objektu hedatuaren ezauzgarri bitxiak	Jon Urrestilla Urizabal	Ana Achucarro Jimenez	2003
	Eraldatutako matrize termoeqonkorren ontze prozesuaren jarraipena zuntz optikoaren bitartez nir eta inpedantzia espektroskopiak aldiberean erabiliz	Galder Kortaberria Alzerreka	Iñaki Mondragon Egaña	2003
	Bilbo hiriko 03 eta N02-aren mailak denbora errealean epe laburrean aurreateko eredu estatistikoaren eraketa	Elena Agirre Basurko	Gabriel Ibarra Berastegui	2003
	Euskararen presentzia gaur egunqo prentsa elebidun abertzalean	Aitor Zuberogoitia Espilla	Txema Ramirez de la Piscina Martinez	2003
	Anitz-gorputzeko elkarrekintzak gainazal metalikotan: energi galera, gainazal egoeren bizidena eta anitz-elektroiko uhin-funtzioak	Arantazu Garcia Lekue	Jose Mari Pitarke de la Torre eta Pedro Miguel Etxenike Landiribar	2003
	Hezitzaileen prestakuntza esperientziala: aisialdiko hezitzaileen harreman-trebetasunak lantzeko proposamen bat	Asier Huegun Burgos	Pello Jauregi Etxaniz	2003
	Fe-Al Aleazioen egitura eta propietate magnetikoen azterketa teoriko eta esperimentalak	Estibaliz Apiñaniz Fernandez de Larrinoa	Fernando Plazaola Muguruza eta Jose Javier Saiz Garitaonandia	2003
	Grimm anaien Kinder-und Hausmärchen euskaraz: itzulpen eta egokitzapenen azterketa	Genaro Gomez Zubia	Jose Manuel Lopez Gaseni	2003
12 emaitza aurkitu dira, orrialdea 1 / 2				1 2 hurrengo orria
<input type="button" value="Itzuli"/> <input type="button" value="Bilaketa berria"/>				

Tesi bakoitzaren fitxa, hau da, informazio osoa eta dokumentua (.pdf formatuan) ikusi ahal izateko, zerrendako osagai bakoitzaren ezkerretan agertzen den ikonoan klik egin behar da.

Tesiaren fitxa

Pantaila honetan tesiaren inguruko informazioa hiru ataletan agertuko da.

Deskribapena

Tesiaren informazio orokorra agertzen da: titulua, egilea, unibertsitatea, fakultatea, saila, jakintza-arloa, urtea eta ISBNari buruzko informazioa.

Fitxa

Deskribapena Laburpena

Titulua:
 Prolii endopeptidasa eta piroglutamil peptidasa I aktibitateen banaketa tisularra

Egilea:
 Naiara Agirregoitia Marcos

Zuzendaria:
 Jon Irazusta Astiazaran eta Javier Gil Goikouria

Unibertsitatea:
 Euskal Herriko Unibertsitatea

Fakultatea:
 Medikuntza eta Odontologia Fakultatea

Departamentua:
 Fisiologia

Jakintza-alarra:
 Medikuntza

Urtea:
 2004

ISBN:
 978-84-8438-152-5

Itzuli

Laburpena

Tesiaren euskarazko eta ingelesezko laburpenak agertuko dira bertan.

Fitxa

Deskribapena Laburpena Dokumentua

Laburpena euskaraz:

"Doktorego-Tesi honen helburu orokorra, sintesi asimetrikorako bideak garatzean datza, tartekari organolitikoak erabiliz karbono-karbono loturak estereoselektibitate altuaz lortzeko. Lehenengo etapa batean, bentilamina eta bere eratorrien sintesi asimetrikoa ikertu da. Sintesi hau, estekatzaile kiralen aurrean eramandako erreaktibo organolitikoaren iminen gaineko adizioaren bidez burutu da. Imino taldearen gaineko adizioan, iminaren egiturek, estekatzaile kiralen egiturek eta erreakzio-baldintzek duten eragina balioztatu da. Bigarren etapa batean, O-bentzil karbamatoen desprotonazio asimetrikoaren bidez eraturako α -oxikarbanioien imina prokiralen gaineko adizio-erreakzioak aztertu dira. Era honetan, treo b-aminoalkohol-eratorriak enantiomeria-soberakin altuaz eratu dira. Azkenik egiaztatu da, N-aziliminio ioien bidezko ziklazioak eta Parham ziklazioak diastereoselektiboki gertatzen direla, nitrogenoarekiko a posizioan gune estereogeniko bat dagoenean. Hasierako substratu bezala L-DOPA eratorriak erabili direnez, enantiomerikoki puruak diren pirrolisokinolonak lortu dira."

Laburpena ingelesez:

"Organolithium reagents in asymmetrical synthesis. The synthesis of amines, amino alcohols and pyrrolisoquinolones
 Abstract
 The general purpose of this doctoral dissertation is the development of methods for asymmetrical synthesis by organolithic means in order to achieve highly stereoselective carbon-carbon bonds.
 The first step was to study the asymmetrical synthesis of benzylamine and its derivatives. This synthesis was obtained through the addition to imines of organolithium reagents with chiral ligands. The effect of imine structures, structures of chiral ligands and reaction conditions on addition to the imine group was evaluated.
 In the next step, we analysed the addition reactions of α -oxycarbanions to prochiral imines through asymmetrical deprotonation of O-benzyl carbamates. In this way, treo b-aminoalcohol derivatives were obtained with a high enantiomer residue.
 Finally, it was confirmed that N-acyliminium ion cyclizations and Parham cyclizations occur diastereoselectively when there is a stereogenic slot in the nitrogen a position. Using L-DOPA derivatives as an initial substratum, enantiomerically pure pyrrolisoquinolones were obtained."

Itzuli

Dokumentua

Tesiari lotutako .pdf dokumentua ikusteko. Tesiak .pdf luzapena dute eta hauek ikusi ahal izateko, beharrezkoa da *Acrobat Reader* bezalako programa bat ordenagailuan instalatua izatea.